

308. Zenb.
2019-4
Urria - Abendua

karmel



EUSKARA EHUNTZEN
euskaltzaindia

100



KARMEL 2019-4

Urria - Abendua

308. Zenbakia

NON ZER

Kultura

- Orixo eta urkabe-bertsok, *Jabier Kaltzakorta* 3
Mikelestorenaren *Cerura nai duenac* liburuaren
lehen edizioa (1749), *Patxi Salaberri* 29

Gizartea

- Obrak mintzo (100 urtez euskara ehuntzen),
Īnaki Mendizabal Elordi 71

Eliza

- Jainkoaganako eragileak eta san Joan Gurutzeko,
Luis Baraiazarra Txertudi 78
Christus vivit, *A. Olea* 89
Biblia onuraz irakurtzeko dekalogo, *Lontzo Zugazaga* 97
Bilboko elizbarrutia: 70 urte, *Martin Orbe* 99

Iritziak

- Lagunaren presentzia eta figura behar ditut nik,
Roman Garmendia 103

Literatura

Kontu-Kontari

- Domingo Garat pastoral, aro beltzak gogoan,
Joseba Aurkenerena Barandiaran 109
Gau-loreak. V. kapitulua, *Francisco Javier Arrieta* 119

Olerkiak

- Joan Gurutzekoaren olerkiak: Artzaintxo.
(Itzultzailea: Luis Baraiazarra) 122

Bertsok

- Mikel Zarate hil zanetik 40. urteurrena, *Lontzo Zugazaga* .. 124

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak – Markina-Xemein
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 16€
(Amerika: 35 dolar)

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

Aldizkari honetan agertzen diren mota guztietako lanak Creative Commonsen baimenarekin babestuak daude.



Eratxikipena - Ez komertziala - Deribatu gabe.

Erabiltzaileak Karmel aldizkariako elementu guztiak bistaratu, inprimatu, kopiatu eta gorde ditzake, betiere bere erabilera pertsonal eta pribaturako badira soilik; betiere obraren *egiletza, jabetza modu egokian aitortuz gero*. Karmel aldizkariako edukiak baimenik gabe merkataritza-helburuetarako erabiltzea edota haiek birsaltzea edo banatzea debekatuta dago. *Lan bat nahastu, eraldatu, edo bertatik beste egintza bat sortzea ere debekatuta dago* betiere **Karmelen** alde zuzeneko baimen idatzia izan ezean, eta hala badagokio, dagokion eskubideen jabearena.

Diruz lagundutako aldizkaria:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

**MIKELESTORENAREN
CERURA NAI DUENAC LIBURUAREN
LEHEN EDIZIOA (1749)**

*Només bi ha una manera seriosa de llegir,
que és rellegir*

Joan Fuster

0. Seguru gaude ez dela J. A. Mikelestorenaren *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza* liburua irakurleari ezagun egingo zaion obra. Eta ez da ezaguna, besteak beste, edizio desberdinetako aleak oso eskasak eta gehienetan eskuragaitzak direlako; baina, gure literatura klasikoan gertatu ohi den legez, batik bat da ezezagun, gaurko literaturzale askori urrun samar geratzen zaiolako izenburuak iragartzen duen mamia. Gu –zilegi bekigu zorrak aitortzea– J. Urtzelai Lasagak jarri gintuen liburuaren lorratzen gainean¹, eta haren bitartez ikasi izan genuen, erlijiozko interesaz gainera, baduela Mikelestorenaren obrak sinemenarekin zerikusirik ez duen bestelakorik ere: bertan erabilitako hizkuntzaren korapiloa lehendabizi, edizio desberdinen inguruko eztabaidarena bigarrenik, eta baita, azkenik, orduko ingurune politiko-ideologikoarekiko uztardurei buruzko auziarena ere, atal guztiak interesgarriak, noski, baina oraindik arretaz jorratuak izaten hasteko zain daudenak. Gaurkoan, labur-beharrez, ia zeharo ezezaguna den lehen edizioaren aurkezpena mugatuko dugu saioa,

¹ Ikus honako esteka hauek: <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MikelestorenaZerura.htm> eta <https://www.mediateka.eus/eu/bildumak/1117/1319>.

hartan baitautza aurrerantzeko argitalpenen iturburua eta aipatu lazka gehienak bideratzeko gakoa.

1. Lesakan jaioa da Jose Antonio Mikelestorena, 1710ean. Apaiz-ikasketak burututa, Iruñean ordenatu zen hogeita lau urte zituela. Dakigunaren arabera, lehendabizi Irunen izan zuen abade-ardura. Geroago, Donostian, bertako moja karmeldarren kaperau nagusi gisa. Aukera izan zuenean, jaioterri-ira itzuli zen parroko modura. Aldi berean, karmeldarrek Lesakan sortu berria zuten komentuko zuzendaria ere izan omen zen (Arzak & Soraluze 1894, 574-575). Bertan hil zen 1785ean.

Haren bizitzaz eta mirakuluez larregi ez badakigu ere, la-
gun eta kide izan zuen Sebastian Mendiburu jesulagunak 1765ean utzitako oharkizun batek eskaini liezaguke Mikelestorenaren soslaiaren ukitu ideologikoa:

Aunque hay tamboril que convida todos los días de fiesta en Lesaca, se puede decir, que *no ha havido allí danzas estos 28 años por la oposición, que les haze don Joseph Antonio Miquelestorena* (ikus Altuna 1982-II, 372; gurea da letrakera etzana).

Manuel Larramendi andoaindarrak gogor baino gogorrago kritikatu zuen Mendiburu konpainiakidea bera bezain intransigentea, agidanez, herriko dantzen aurrean.

Idatzita eta inprimatuta utzi zituen idazlanen artean, hona ekarriko dugun liburua da euskal irakurleontzako garrantzi eta interes gehien duena, berehala ikusiko den bezala. Halere, jakina da lesakarrarenak direla Hernaniko moja agustindarren komentuarien sorrera-idazkiaren gaztelaniazko itzulpena (1767) eta haien erregelaren edizioan atonduetako hitzaurrea (1768) ere.

2. Egungo euskara bateratuan *Zerura nahi duenak bar dezakeen bide erraza* gisara izenda genezakeen liburua da Mikelestorenari ezagutzen zaion bakarra. Edo zehatzago esanda, liburu bakarra, baina edizio anitzekoa aldi berean. Alegia, guk dakigunez, bost aldiz inprimatu zen idazlana, edizio

guztiak desberdin egiten zituen ñabardura edo bereizgarriren batez edo bestez hornituak. Izan ere, ohiko argitalpen finko eta aldagabearen kaleratzearen lekuan, edizio guztietara hedatu zituen moldaketa-aldaketak, oso xumeak gehienetan (grafiari eta aditz formei zegozkienak nagusiki: *nai/nay*, *dezaquen/dezaquean*, *bear/behar*, *zara/zera*, *det/dut*, etab.), baina baita ere, tartean, arreta berezia eskatzen dutenak ere.

Adierazi moduan, bada, bost dira egunotara iritsi zaizkigun edizioak¹, azken biak datarik gabe kaleratuak, eta guztiak Iruñeko lau irarkolatan inprimatuak: Martinez liburugilearen ondorengoan Etxean lehena, 1749an; Geronimo Anchuelarenean bigarrena, 1751n; M. Joseph Rada-ren irarkolan hirugarrena (1754) eta laugarren edizio dirudiena (datatu gabea, esan legez); eta Longás-en inprimategian, azkenik, ustez hondarrekoa den edizioa (datarik gabe berau ere).

Besterekin gertatu ez bezala, liburu honek ez zuen inprimaldi gehiagorik izan; bere garaian liburu arrakastatsua suertatu izan zen arren eta, dirudienagatik, merkatutik laster asko desagertu bazen ere.

Erantsi behar da, halaber, une honetan eskuragarri dauden aleak ere oso gutxi direna kopuruz, edizio gehienetatik ez baita ale ezagun bana besterik gordetzen.

Baina azaleratze-premia duten arrazoiak eta hipotesiak falta ez badira ere², ez gara orain hemen desagertze enigmatiko horretaz jarduten hasiko, eta gatozen lehenbailehen jomugan dugun aurreneko argitalpena aurkeztera.

3. *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza* (Iruñea, Martinez, 1749) liburuaren edizioari dagokion alea egun Do-

¹ Ezin jakin noraino den zuzena, Larramendi hiltzean, haren gelan aurkitu omen zuten 1744ko edizioaren albistea (ikus Altuna 1984, 81). Transkribapen-akatsa izan daiteke, halere.

² Edizioei buruzko datu gehiagotarako, ikus Salaberry prentsan-a eta prentsan-b.

nostiako Udal Liburutegian dago gordeta eta horixe bera da hemen baliatu duguna³.

Ongi zaindua izan den eta orrialderik ments ez duen ale hau arreta handiz inprimatutako edizio batez mintzo da, oro har. Ez dugu guk argitalpen hartako beste alerik ezagutzen⁴.

Formatu txikiko edizioa izan arren⁵, irudi mordoaz zipritindua dator eta oso era orekatuan eta erakargarrian eskaintzen du testua. Alegia, atalak orrialdeen tamainara egokiturik ematen dira haien luzerak ahalbidetzen duenean⁶; hots, atal bat, orrialde bat (edo bi). Ikus, adibiderako, 14-15, 16, 35..., eta, batik bat, “Meza enzuteko modua” delakoari dagozkion orrialdeak, non irudiak –sinpleak, baina grafikotasun eraginkorrekoak– testu laburrekin uztartzen diren.

Irudiei dagokienez, ez da hau bezalakorik aurkitzen hurrengo edizioetan, testu hutsez jantziak baitira gainerakoak, irudirik gabe.

Guztiarekin ere, apalategietako bakardadean galdurik dartzan heinean, lar ezezagun gertatu den edizioa dugu honako hau⁷ eta, autorearen lehena izanik, ezinbestekoa dirudi haren

³ Bihoazkio gure eskerrik beroenak Arantxa Arzamendi arduradunari liburua kontsultatzeko eskaini dizkigun erraztasunengatik.

⁴ Ale honetaz jardun bide du Alzolak ere: “El único ejemplar de esta edición que conozco pertenece al farmacéutico iruñés, residente en San Sebastián, don Jesús Cilveti Azparren. Lo adquirió por la considerable suma de cinco mil pesetas, hace no muchos años” (Alzola 1967: 1979, 245).

⁵ Honela deskribatzen du Alzolak liburutxoa: “114 páginas, 0,10 X 0,07 m. Lleva abundantes viñetas, bien ejecutadas. En las páginas 95-109 se inserta una Novena al Corazón de Jesús («Jesusen Biotzaren bederatzaurrena»), y en las páginas 110-114 estrofas cantables que comienzan: «*Gure gusto, gure atseguin, / Gure Jesus maytea; / Cere Biotceco Suan/ erre zazu gurea*» (idem).

⁶ Ideia azkar bat egin dezake irakurleak hogeita hamarna inguru karaktereko hamazortzi lerroz osatutako orrialde-eredua irudikatzen badu.

⁷ Datarik gabe inprimatuak dira, egia esan, edizio ezagun bakarrak eta bi-biak ditu irakurleak sarean eskuragarri, bai Radarena eta bai Longásena (<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/8886> eta [32](http://www.libu-</p>
</div>
<div data-bbox=)

berri izateak eta hartara jotzeko bidea zabaltzeak. Geroago le-
tozkeenetarako erreferentzia konparagarri huts gisara erabil-
tzeko bada ere.

Argitalpen erakargarria, hortaz, eta interes handikoa. Eta horrexegatik, hain zuzen, orrialdeotara ekarria.

4. Espero zitekeen moduan, edizio honen testua da gaine-
rakoen oinarrian dagoena⁸. Harena da, zalantzarik gabe, beste
guztiak aztertzean atzematen den ehundura nagusia, eredia
eskaintzen duena, hala atal larri zein txikienei dagokienez no-
la erredakzioari berari. Noiz zuzendua edota moldatua, noiz
osatua edo egokitua, edizio honetatik⁹ abiatu ziren eta honen
erreferentzia egiten dute beste lau edizioek.

Edizio honetako bereizgarri zehatzei gagozkiela, bada na-
barmen daitekeenik ere.

Egitura hurrengo beste hiru edizioena bezalakoxea du¹⁰. Ez
dakar aurkibiderik eta, oro har, lau atal dituela esan daiteke:

–“Ongui vicitceco modu labor errazak” (1-32 or.),

–“Meza enzuteco modua” (32-70),

–“Calvarioco estacioac” (71-93)

–“Jesusen Biotzaren bederatzi-urrena” (94-114).

Hizkuntz ezaugarriak aztertzerakoan, Mendibururen eragina
izan zuela pentsa daiteke¹¹, edo, hobeto esan, oiartzuarrak bi ur-

ruklik.euskadi.eus/handle/10771/8884, hurrenez hurren).

⁸ Edizio horretan oinarrituak, nahiz eta alderdi formaletan –eta (orto)gra-
fikoan, bereziki– era desberdinez egokituak.

⁹ Edizioen ñabardurak ikusita, okerrik egiteko beldurrik gabe esan gene-
zake jatorrizko eskuizkribua –arketipoa– lehenabiziko edizio hartarako
baino ez zela erabili, hurrengo argitalpenen zuzenketa-moldaketak eskuarki
aurreko edizioak baliatuz burutu zirelarik.

¹⁰ Argitaratzen azkena dirudienak –Longás-en irarkolan egindakoak, alegia-
ez du “Jesusen Bihotzaren bederatziurrena” eransten eta bai, aldiz, askoz ere la-
burragoa den “Acto fedecoa, esperantzacoa eta caridadecoa” izenekoa, Juan
Irazustaren 1739ko katiximatik zuzenean garraiatua (ikus Salaberri prentsan-a).

¹¹ Ezin da ahaztu Mikelestorena eta Mendiburu kideak (lankideak? lagu-

te lehenago kaleratutako *Jesusen Bihotzaren devocioa* liburuarena (1747). Eta zergatik diogu liburuaren eragina eta ez bakarrik egilearena? Bada, bertan, ezaguna denez, Larramendi ospetsuaren hitzurre entzutetsua ere argitaratu zelako eta, okerrago baina aratzago dena, Mikelestorenak bai Larramendiren eta bai Mendibururen eragina erakustez gainera, haiengandik xurgatuagatik inkoherentzia zenbait ere islatu zituela ikusten delako.

Hobeto ulertuko da adibideren batez edo bestez adierazita.

Larramendiren hitzurrean eta Mendibururenean etengabeakoa da *dezu* adizkiaren erabilera, printzipioz bederen lesakarraren hizkuntz azturarekin kontrastean zegoena. Alabaina, honako pasarte honetan islatzen den moduan, Mikelestorenaren “hautua”-k adizki-forma horri ere egiten dio men:

Arratsean etzin baño len, ecusico *duzu*, certan, edo nola pasatu *duzun* eguna: arquintzen *baduzu*, cembait gaucetan utseguin *dezula*, escatuco diozu Jaincoari barcacioa, ta essain *dezu* Actu Contriciozcoa guisa onetan (1749, 5 or.; gurea da letra etzana).

Eta egiten dio men bai lehen edizio honetan eta bai, adizkiok aliritzira bezala jarririk edo, ondokoetan ere; hau da, pasarte honetan bertan, batzuetan *duzu-dezun-baduzu-dezula-dezu* izango da adizkien hurrenkera (1751 eta Rada d.g., 7 or.), eta besteetan *dezu-dezun-badezu-duzula-dezu* erakoa (1754 eta Longas d.g., 7 or.), guztietan mugakide diren euskalki desberdinei dagozkien formak (*dezu/duzu*) txandakatuz, eta, itxura duenez –kasualitatez?–, gipuzkeraren areagotze-moduan jarririk¹².

nak?) zirela lehenagotik. Oartzuarrak berak ematen du data: “[...] dirè aun más en boca de Don Luis Arburu respetable Beneficiado del mismo Oyarzun, y digno de fe [...]. Este pues, haviendo oido en una mission, que el año de 1745 hizè alli, quanto dije à cerca de las danzas (apenas he dicho tanto en parte alguna sobre el assumpto) dijò a *Miquelestorena, que [...] era entonces mi compañero [...]*” (in Altuna 1982-II, 373; g.l.e.).

¹² Hau da, lehen edizioan hiru aldiz *duzu* eta bi aldiz *dezu*; 1751koan eta

Dena den, lesakarraren hizkuntz irizpide irristakorrei¹³ ezer leporatzen hasi aurretik, eta hautua behar bezala ulertu ahal izateko, aintzat hartzekoa izan liteke, agian, aipatu adizkiaren erabileraz Larramendik ohartarazten duena, izan ere, Mikelestorenaren jaioterriko eta erlijiozko eginkizunen joka-lekuetako hitzunen hizkuntz usadioez mintzo baitzaigu aldi berean:

En Beterri, desde Irun hasta Rentería inclusive, usan la terminacion labortana *dut, duzu* sin interrupcion; desde San Sebastian hasta Tolosa interrumpidamente *det, dezu, du* [...], *degu, dezue, dute* [...] (1882, 268-269).

Xede didaktikoa bilatzen zuen hibridazio modukoa, akaso, Mikelestorenaren jokamoldea?

Esparru dialektologikoan barneratzeko asmorik gabe bada ere, onartu behar da ildo berekoa –eta bitxia– dirudiela partizipioan *-n* duten aditzekin Mikelestorenak dagien erabilerak, eta horretan ere, une batez, idazlana euskalki guztien “arrago” bilakatzea lortzen duela. Honako pasartetxo hau adibide:

Al dezun egunean *enzunen* duzu Meza bat. Ecin ba-zoazque Elizara, *enzungo* dituzu gogoz, ta deseoz egun artant [sic] munduan ematen diranac. Egunoro *essain* duzu ichecoequin [...] (1749, 4; gurea da letra etzana).

Bi lerrotan bateratuak, bistan da, euskaraz geroaldia osatzeko ditugun hiru forma posibleak.

Baina ironiak alboratuz, Mikelestorenak geroaldirako darabiltzan *essain, joain, edain, emain* formak Gipuzkoako alderdi batean ere ohikoak ziren Larramendiren garaian, batez ere Mendibururen jaioterrian eta inguruetan:

En Oyarzun [ezagunak dira] por *Esain, Emain* y otros acabados en *n*, y tambien *esanen, emanen, equimen*, en vez de

Radaren d.g. delakoan bi bider *duzu* eta hirutan *dezu*, eta 1754koan eta Longasenean behin bakarrik *duzu* eta lau aldiz *dezu*.

¹³ Ezin nabarmenagoa da irizpide falta hori atal (orto-)grafikoan, irakurleak eranskinean doan liburuaren transkribapenean ikus dezakeenez.

esango, emango, eguingo: y lo mismo es en sus vecindades de acá y de Navarra (Larramendi 1882, 269).

Berriz ere aurkitzen dugu lesakarra, bada, ez dakigula iriz-pide-zalantzatan ote dabilen ala lagun zituen jesuitei eta inguruan atzematen zituen irakurleei men egiten.

Antzeko zerbait esan liteke Mikelestorenaren bestelako hautuez, zalantzez eta anabasez ere, besterenetan ikusitakoak “gidatzen” duela ematen baitu. Batzuk, eta ez gutxi, Larramendirenean ikusitakoak. Andoaindarraren atalean, esaterako, sistematikoa da Mendiburuk *b*-rekin dakartzan hainbat hitz *b*-rik gabe aurkitzea (*biotz*, *bear*). Lesakarraren lehen edizioan –desberdin jokatu du hurrengoetan– Larramendik bide darara horretan garaipena, nahasmenduaren erdian bada ere¹⁴.

Mendibururen *-tce*, *-tci* (*urtcen*, *guelditcea*, *utci*) eta Larramendiren *-tze*, *-tzi* direlakoan aurrean, Mikelestorenak –estatistika zehatzik egin gabe ari gara– erdizka bildu zituen edizio honetarako formak, hau da, iparrorratz koherenteegirik agertu gabe.

Gainerakoetan, aski nahasia dute josulagun biek ere jokabidea, berdin idazten baitituzte era batean zein bestean lexikoa¹⁵, erakusleak¹⁶, kontsonante-elkarketak¹⁷, etab.¹⁸

¹⁴ Lehen edizioaren nahas-mahas ortografiko horren erakusgarria da 84. orrialdea: *bear* (behin baino ez) eta *behar* (hiru aldiz) ikus daitezke hamar lerrokkatan banatuak; eta aldi berean, *bonetan* eta *orretaraco*.

¹⁵ Horretan Larramendiengandik jasoa dirudi *y* hizkiaren erabilera: *bay*, *Ayta*, *gueyenac*, *ayentzat*, *oyec*, *zayela*, *noycean*, *loyac*, *etsayaren*, etab.

¹⁶ Larramendik: *onec*, *onen*, *oni*, *oyec* [...] eta *bori*, *bura*, *harc*, *boriec*, *boriei* [...]. Mendiburuk, *b*-zaleago: *hau*, *bura*, *boec*..., baina, aldi berean, *oec*, *orietatic*...

¹⁷ Hots, <nz, lz, rz> elkarketetan afrikatu gabe ere gera daitezke frikariak, berdin Larramendiren lerroetan (*enzule*, *bulzaca*), Mendibururenetan (*enzute/entzute*) zein Mikelestorenarenetan (*enzun/entzun*, *etorze/etortze*, *zorzi/zortzi*, *zabilza/dabiltza*, *cembilzala/cembiltzala*, *ilzeco/iltcen*...). Alabaina, <ns, rz> agertzen diren kasuetan lesakarrak bederen ez du salbuespenik egiten: *bearsu*, *indarsu*, *persona*, *pensatu*, *manso*, *consagratu*...

¹⁸ Azpimarratzekoak dira ahozko ebakeraren isla erakusten duten fonema-

Anekdotak gisa bada ere, lesakarraren lehen edizio honetan bakarrik azaltzen da ekialdeko *bertce* forma (birritan: 88 or.), betiere beste bospasei *beste*-rekin lehian.

Horrexegatik guztiagatik genion, hain zuzen, Mikelestorenaren aditz- eta grafia-hautuak, zalantzak eta anabasak gure autore larri bi horien irakurketa egitetik –ere– datozkiokeela.

5.- Hurrengo lerroetan ematera goazen liburua hobeto uler dadin, jatorrizkoan baino zertxobait nabarmenduago utziko dira hemen, letrakera larria eta beltza erabiliz, arestian aipatu-tako lau atal nagusiok.

Horrekin batera, eta jatorrizko tipografiari hein batean muzin egin behar izan bazaio ere, testuaren irakurketa errazteko xedeak puntuazioa ere egokitzea bulkatu gaitu inoizka (oso gutxitan, egia esan).

Berdintsu gertatu zaigu formatuarekin ere, irakurketa argiago izango zela iruditurik, aldatu egin baitugu edizio inprimatuan datorren molde berdintzailea. Hori dela eta, garbi bereizi ditugu otoitz huts direnak (alboetako margenak zertxobait sartuaz) otoitz ez diren gainerakoetatik.

Esan beharrik ez da akatsak-eta zuzendu egin direla georogoko edizioak erreferentziatzat hartuz. Nolanahi ere, liburuak dakartzan bezala idatzita azalduko dira dagozkien oharretan, “jat[orrian]” laburpenaren ondoan.

Zuzendu ez denik ere bada tartean, jakina. Alegia, jatorrizko bertsioari zor uste zaion leialtasuna dela eta, ez da liburuak dakarren grafia aldatu. Ez bedi inor harritu, beraz, *y*, *ss*, *qu*, *c*, *tc* eta egungo liburuetan arrotz samarrak diren bestelako hizkiak ere aurkitzen badira –eta aurkituko dira, noski– testuan barrena.

elkarketak: *etzaitzu*, *etzaitut*, *ezpaduzu*, *ezpacen*... Aipatu josulagunen ezpalekoak hauek ere (Larramendi: *ezpadira*, *etzaitzatela*, *eztezu*... Mendi-buru: *eztira*, *etzaitecen*, *ezpacera*...).

Ohi bezala, jatorrizko edizioan orrialde bakoitzari eman zaion ondozkatze-zenbakia islatzen dute gure bertsioan barrena azaltzen diren “< >” zeinuen arteko zenbakiek.

Aramaion, 2019ko ekainaren 17an

Patxi Salaberri Muñoa

Bibliografia:

- Altuna, P., 1982, *Mendibururen idazlan argitaragabeak. Edizio kritikoa*, I eta II, Bilbo, Euskaltzaindia & Ed. Mensajero.
- , 1984, “La auténtica biblioteca de Larramendi”, *Muga* 28, 66-81.
- Alzola, N., 1967: 1979, “Notas bio-bibliográficas sobre J. A. Miquelostorena”, *La Gran Enciclopedia Vasca*, II, 244-246.
- Arzak, A. - Sorraluze, P. M., 1894, “Arqueología guipuzcoana. Hernani. El monasterio de san Agustín (Continuación)”, *Euskal-Erria. Revista Bascongada* 30, 572-576.
- Irazusta, J., 1739, *Doctrina christiana eguin zuana erdaraz, Aita Gaspar Astete, Jesuitac. Ipinu du Eusqueraz Don Juan de Yrazuzta, Erretore Hernialdecoac, ceña dan Provincia Guipuzcoacoan, bere Feligresiac aurrari Doctrina eracusteco; eta añaditcen dio Encanacioco, eta Eucaristiaco Mysterioen esplicacioa, baita ere confesio on baten condicioac, eta Acto Fedeco, Esperantzaco, eta Caridadecoac*, Iruñea, Joseph Joaquin Martinez.
- Larramendi, M., 1882, *Corografía de Guipúzcoa*, Bartzelona, J. Subiranaren alarguna eta seme-alabak.
- Mendiburu, S., 1747, *Jesusen Bihotzaren Debocioa*, Donostia, B. Riesgo Montero.
- Mikelestorena, J., 1749, *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza*, Iruñea, Martinez.
- Salaberri, P., prentsan-a, “Testu-erlazioak eta eklektizismoa zeruko bidean (Oharrak Mikelestorenaren *Zerura nabi duenak* liburuz)”.
- , prentsan-b, “Mikelestorenaren *Zerura nabi duenak* liburuen edizioak mintzo”.

CERURA
NAI DUENAC AR DEZAQUEAN VIDE ERRAZA

Joseph Miquelstorenac eracutsia.

Bear bezala, Iruñeco Martinez Libruguilleanen ondorengoan
Echean. 1749.



AVE MARIA
GRATIA PLENA
DOMINUS TECUM

<1>

ONGUI VICITCECO MODU LABUR-ERRAZAC*GOIZOROCO OTOITZA*

Nere Jauna, ta Jaincoa milla esquer sortu ninzanic onara zure escutic artu ditudan ondasun, ta favore guciac gatic. Zure icenean nere egun onetaco hitz, asmo, gogo, ta lan on guciac. Indazu Jesusen Biotzeco amorea gatic, diranac¹⁹ <2> ongui eguiteco gracia. (*Nai duenac bere animaren, nai duenac gueiena zor dien Purgatorioen favoretan ofrecituco ditu*). Jesus maitea, ez dedi-lla egun onetan becatuaren loiric nere biotzean sartu: ala escatcen dizut zure Biotzeco amorea gatic.

Aita gurea &c. ta *Ave Maria*, &c.

Gutziz garbia ceran Jesusen Ama maitea, lagun zaquizquit egun hau garbiro pasatzen.

Iru *Ave Maria*.

Nerequin zabilzan Aingueru guardiacoa, nere iceneco, nere devocioco Santu, ta Ceruan arqitzen zerazten guciac, izan zaitezte egun nere laguntzalle onac.

Aita gurea, ta *Ave Maria*, &c.

<3>

*GOICETIC ARRATSERANO EGUIN BEAR DIRAN
CEMBAIT GAUZA*

Jan otordu gucietan *Aita gurea*, ta *Ave Maria*, &c. Jesusen Bihotzeco amore penen icenean.

Orduoro Jesusen Ama Virginari. *Ave Maria*, &c.

Irabazten dira berrogei eguneco indulgenciac *Ave Maria* essan ondoan, essaten bada:

¹⁹ *Dena = guztia / diranak = guztiak.*

Jesus, maitatzen dut zure Biotza,
Eta esquez nago Virgiña Amari,
Lagun daquidan orain ta beti.

Beste berrogei egunecoac irabazten dirà orduoro, eta noiz nai essatearequin:

Jesus maitea, zure Biotzari <4> non nai, ta nion baño gueiago Aldareco Sacramentuan zor diodan amoreari eranzutea gatic, nai niquezu eman nere biotz oso osoa.

Al dezun egunean enzunen duzu Meza bat. Ecin ba-zoazque Elizara, enzungo dituzu gogoz, ta deseoz egun artan²⁰ munduan ematen diranac.

Egunoro essain duzu ichecoequin, edo, campoan bazabilza, baccarric, Ama Virginaren Rosario Santua.

Cere bearri-beguez, cere mingain, ta biotzaz iduquico duzu, becatuz loitu ez ditecen, egun gucian contu.

Arratsean etzin baño len, ecusico <5> duzu, certan, edo nola pasatu duzun eguna: arquizen²¹ baduzu, cembait gaucetan utseguin dezula, escatuco diozu Jaincoari barcacioa, ta essain dezu Actu Contriciozcoa guisa onetan.

CONTRICIOA

Nere Jesu Christo Jauna, Jainco, ta Guizon eguiazcoa, nere Criadore, ta Redentorea, ceren ona zaran, ta maite zaitudan gauza gucien gañean, damu dut zu ofendituaz: nai ditut confessatu, ta utzi nere becatu guciac, beren ocasio, ta vide gaistoequin²², zure gracia edo lagunzarequin batean.

Au essan, edo eguin ondoan, escatuco <6> diozu Virgiña Amari iru *Ave Maria*requin, gaù pasatzeco deusetan utseguin bague, gorde zaitzala Jesusen Biotcean: ta Biotz onen amoreac gatic essain duzu *Aita* gurea, eta *Ave Maria*, &c.

²⁰ Jatorrian: *artant*.

²¹ Jat.: *arquizen*.

²² Jat.: *gastioequin*.

GAÑERACO DEMBORAN EGUIN BEAR DIRANAC

Etzaitzu asteric²³ joain, baruren bat edo cerbait mortificacio eguin bague.

Confessatuco zera hasteoro, amabostetic amabostera, ogueian bein, edo beranduenean illetic illera.

Ez dezazula jai igandeetan Meza nagusira joan bague utzi. Ez dezazula <7> vezperatara falta, ez ta Rosario Santu edo veste edocein devociozco²⁴ lan edo obratarara²⁵ ere.

Egun oitan iracurric duzu cerbait, edo leituco libru onen batean: edo, iracurcen ez badaquizu, iracurzalleren bati ori zure aitciñean eraguiñen diozu.

Eguizu urteoro urteco Confessio generala.

Ocasio gaistoetatic igues eguiteco, etsayaren ta araguiaren tentacioac garaitceco, ta mundu eroa oiñ pean erabilceco, ecarrico duzu noycean bein cere gogora zure vicitza ta egunac laburrac dirala; zure vicitzan eguiten dezun guciaz il bezain laster, eman bear diozula, <8> deus gordeco etzaion Jaincoari contu estu eta arrigarria; ta contu au ongui ematen ez badezu, bearco duzula, Jaincoa den artean, egosten ta erretcen egon infernuan.

Edertasun, ondasunac
lurra bere gaucequin,
eriotzac uzten ditu
urraturic ortcequin.

Contu andi, contu gogor,
becatuen contua!
ni zu emateco nago,
ez non daquit, ez nola.

²³ Jat.: *Hasteric*.

²⁴ Jat.: *devocizco*.

²⁵ Jat.: *obretara*.

Contu au passatuco da
guchiren aiticñean;
bigarren izugarria
munduaren aurrean.

<9> Non zabilza, certaco da
ambat²⁶ becatu itsusi?
asco da bat, Infernuan
erretzeco zu beti.

Zure begui loi ciquiñac
egoin dira lerturic,
zure zain ta zure ezurrac,
su ta gar biurturic.

Suzco lanzaz belarriac,
biotza ilcez josiric,
sabela iduquico dezu
pozoi ta azufre eguiñic.

Beti tiratuco dizu
Dragoiac mingañetic:
arrac erorico dira
buru-gorputz gucitic.

Ango suac, ango garrac
edain dituzu beti:
<10> milla sugue, zapo dira
mai artaco janari.

Odol-muñac iraquiten,
ezur zañac urturic,
aragui gucia egoin da
icatz eguin, ta erreric.

²⁶ Jat: *amabat*.

Otsotzarrac, basurdeac
 an ortzac zorroturic,
 erabilli bear zaituzte
 urratu, ta lerturic.

CONFESSATU BAÑO LEN EGUIN BEAR DIRAN GAUZAC

Lembicicoa: becatuen contua ongui ateratzea.

Bigarrena: becatuen gañean ciñezco damu ta urriquimentua ar-
 tzea, ceren diran <11> Jainco guztiz maitagarri baten contra eguiñac,
 edo ceren escua ematen dioten Jaincoari, Cerua quendu, ta Infer-
 nuan beti erretcen iduquitceco, oriec eguiten dituen.

Irugarrena: ez berriz becatuetara itzulceco, ta becatuen ocasio gais-
 toetatic igues eguiteco, eguiazco asmo edo propositu sendo bat artzea.

Confessatcera zoacenean beguira zazu certara zoacen, ta nore-
 quin itz eguitera. Asserretua daducazun Jainco andiarequin baqueac
 eguitera zoaz. Bere lecuan, ta bere escu guciarequin daducan Con-
 fessore Jaunarequin itz eguitera zoaz. Itz eguiozu, bada, begui-biotz
 <12> humillequin. Ez diezagozula deus ere gorde; gucia daquien
 Jaincoa beguira dago, osoro essaten badituzu cere obenac, eta bio-
 tza damuz ta proposituz betea daducazula, guci guciac barcatceco,
 bere hume maite zu eguiteco, graciaz edo doayez betetzeco, beca-
 tuarequin galdu dituzun ondasun edo merecimentu guciac itzulceco,
 eta secular aserretu ez balitzaitzu bezain zurequin adisqueide guel-
 ditzeco. Baña essan bear den gauzaríc gordetcen badiozu, leneco
 becatu guciequin ta eguiten duzun confessio gaistoaren cate izugarri
 batequin loturic utzico zaytu, <13> ta len baño asserreago²⁷ gueldi-
 tucoda zurequin.

Ongui artzen den absolucioac berequin dacartzi, Christo Jaunac
 gugatic isuri zuen odolaren merecimentuac. Merecimentu oriequin,
 iturrian ongui beraturicaco oiala baño obequi garbitcen da bear be-
 zala confessatzen denaren anima. Confessatcera zoacenean, eguizu
 contu, Christo Jauna il cen Calvario Santura zoacela, an eman zuen
 odol gucia edo odolaren valioa cere biotzean artzera, ta dituzun ani-
 maco loi guciac quencera.

²⁷ Jat.: *esserreago*.

<14>

*CONFESSOREAREN OÑETARA BAÑO LEN ESSAN
BEAR DEN OTOITZA*

Ah, nere Jainco maitea, badaquizu, bai, cein gaistoa nazan ni, ta zein gogorra! Cere graciaren golpez bera zadazu arrizco biotz hau, onetan sar dedin zure amorea, ta ar ditzadan beguitan eguin ditudan ta eguin nitzaquean becatu guciac. Ayta Eternoa, zure Seme mayteac eraman cituen neque-doloreac gatic, barcatuac guerta bitez arren nere becatuac. Ez diezagozula beguiratu nere gogorrari, beguira zagozu <15> dolerez nere culpac gatic erdiratua dagoen aren Biotzari. Ez niri beguiratu bacarric, beguira zadazu nere culpac bere gañ artu dituen zure Semearequin batean, Onèn escuetan utzi ditut nere gauzac. Onen Biotzean nay nuque sartu nere biotza, itzuli liezadan nere bidebageen, nere oben ta culpen damuz urturric, zure beguietara atera ledin zuri damuric emain ez dizun guisan edo estaduan. Ala guerta dedilla, ta irabaz dezadala nic, artzera noan absolucioarequin batean, zure bendicio santua ta gracia.

<16>

CONFESSATU ONDOAN ESSAN BEAR DENA

Milla ta milla esquer, Jainco maitea, ceren lotua nenducaten becatuen cate izugarriac urratu ta auts eguiñac utzi dituzun. Ez dut nic indarric; ez daquit nola zure Misericordia ta Piedadea laudatu; lauda zaitzatela nere iceanean Ceruan diran Aingueru ta Santu guciac. Uste dut, zure laguntzarequin batean, ez nazala berriz becatuen cate gaistoetara itzulico. Ceruco Santuac gatic, cere Seme mayte ta onen Ama garbiagatic escatzen dizut didazula nere asmo edo propositu onetan beti irauteco bear dudan gracia gucia.

<17>

COMULGATU BAÑO LEN EGUIN BEAR DENA

Comulgatzèco zaudenean, beguiratuco duzu ongui, edo pensatuco, certara zoazen, ta nor gana, edo nor datorren zu gana. Zu gana dator

Jesus maytea, Jainco ta Guizon eguiazcoa, Aytaren escoyetic dagoena, Ceruaren ta lurraren jabea, zu eguin cinduena, bere escutic zaduzcana, zu galdu etzindecen Guizon eguin cena, ta zure beguiratce, queñu ta eguin edo asmatu dituzun gauzaric chiquienen contu estu arrigarria artu bear dizuna; Jaun bat gucia¹ daquiena, <18> ondasunez betea, bazterric bagueco anditasuna duena, Ceruan diran Aingueru ta Santuac beguiratce batequin icara daducatciena; Jaun au, bada, da bocadu eguiñic zure gana datorrena. Arritua dago Eliza nola Jaincoa eguin cen Guizon, ta sartu cen Virgiña Ama garbiaren sabelean: *non horruisti Virginis uterum*; gueiagio arritu bear luque ecusiric sartcen duzula zuc, ambat becaturen suge ta sierpe iduqui dituen cere barren orretan.

Badaquizu nor ceran zu? Zu cera aren beguietan aur char bat, cere ezaguera edo adimentua itsutasunez ta illumbez betea <19> daducazuna, ta cere biotza becatuz josia ta loi eguiña. Ecusi zazu, baldin Centurion edo Soldaduen nagusi guizon prestu Evangelico ura ez pazen trebe Christo Jauna bere echean artzera, nola trebe izain zaran zu Christo Jauna bera cere iche, edo barren ciquin orretan artzeco? San Pedroc, ceren gaistoa cela ceritzan, etzion utzi nai oñac garbitzen, utzico diotzazu zuc beldurric bague, daquizun bezain gaistoa cerala, oñac eta den gucia bere Jainco-tasunarequin cere barrenean sartzen? Etzuen uste San Juan Bautistac quen citzaqueala Christo Jaunaren zapatetaco locarriac; <20> Aingueruac berac ez dira bear bezain garbiac aren beguietara ateratzeco; ta zu atrebitzen cera ambat becatu iduqui dituen cere barreneco lece izugarri orretan artzera Jaun andi ura bera? Alic onguiena garbitu ta apaindu bague, etzenuque artuco cere eche charrean Erregue bat; eta Erregue gucien Erreguea or artzeco, garbitu duzu ongui, ta apaindu virtutez, cere biotzeco iche char, ambat demboraz, becatuaren ciquinqueriz ta pozoiez beteric egondu den ori?

Certara ote dator zuregana Erregue andi ori? Animaco eritasun ta bearren azpitic zu ateratzera; <21> zuri cere zorrac barcatzera, zu bere adisquide eta berequin bat eguitera, eta zuri bere graciaren vicitza edèrra ematera.

Virgiña Amaren Sabelera etorcearequin aditzera eman zuen Christo Jaunac anitz nai ciola munduari; ta etortcearequin² bein ta ascotan zu-

¹ Jat.: *gaucia*.

² Jat.: *etorcearequi*.

re bihotzera, ez du ongui asco edo claroqui aditzera ematen nai zai-tuela zu berea eguin ta ondasunez betea utzi? Ustu zazu biotza ta gar-bitu ongui, ondasun oriequin betea gueldi dedin; esca zagozu Espiritu Santuari biguñ diezazula, bere doai ta virtuteaquin edertu diezazula ta apaindu orren Erregue <22> andiari eman bear diozun zure bihotzeco hostatua. Esca zaiezu cere Aingueruari ta Aldarean arkitzen diran gu-ciai, bai ta Ceruco Santu ta Santai, ta gucien gañean, artzera zoacen Jesus onaren Ama maiteari, eracutsi diezazutela cer eguin bear dezun Erregue andi ori zure icherutzen denean, ta daguitela berac zuc eguin bear cenuqueana, ta berac daquitzen gucia.

COMULGATZERACOAN ESSAN BEAR DEN OTOITZA

Biotz becatuen damuz erdiratu bat escatzen duzun, Jaungoico <23> Ona, indazu cerorrec orretaraco bear dudan urriquimentu gucia. Ecin ecusi ditut zu atsecabez bete zaituzten nere becatu ciquiñac; damu gueiena ematen didatenac dira Aldareco Sacramento³ Santuaren contra eguin ditudanac, nere comunio gaisto edo probechu guchicoac, Elizan bazterretara beguira edo gogoa Elizaz campoan neducala egoteac, eta zure Gorpuz Santuac ambat aldiz uquitu dituzten nere mihi-ezpañaz ain contu guti iduquitzeac, edo ambat aldiz bear ez diran hitzaquin ciquintzeac. Ceren Balthasar Babiloniaco Erregue arc bere maian paratu cituen Jerusalengo <24> Elizaco Calizac, galdu cituen bere imperioco baster andiac, eta il zuten bere etsaiaren soldaduac: cer castigu mereci dut nic, ceren ambat aldiz nere mingaiñ-ezpañac, anima ta gorputza loitu ditudan? Bada, Jerusalengo Calicetan Cecenen odola sartzen cen, eta nere Gorputzean Christo Jainco ta Guizon eguiazcoaren odola. Ah Jesus Ona, lotsaz ta alquez beteric nator zure mai Santura! Zure Biotcetic nai nuque nere gaitzac bear duten erremedioa aterra. Loi pitsic ecin eraman duen ta amorez erretcen dagoen zure Biotzac garbi dezala nerea; eta daguiela beste <25> ain beste nere mingañarequin⁴, begui ta bearrie-

³ Jat.: *Sacrameutu*.

⁴ Jat.: *migañarequin*.

quin ta anima guciarequin, biotz guctic et a osoro maita
zaitzadan. Ala guerta dedilla.

COMULGATU ONDOAN EGUIN BEAR DENA

Christo Jauna cere barrenean artu bezain laster, eguiñen duzu
contu zu cerala Sagrario bat, beren Jauna adoratcen ta maitatzen
dauden Aingueruz inguratua; ta zuc ere zurequin dagoen artean idu-
quico dituzu oriequin batean, beñere quendu bague, cere beguiac
eta bihotza Jaun andi orri beguira, eguiten <26> dizun favorea gatic
esquerrac ematen, eta dizun amoreari amorez erantzuteco.

Oartzen bacera edo siñistea galdu ez paduzu, ezagutuco duzu zu-
re barrenean arquitzen dela bederatzi illabetez bere sabelean Ama
Virgiñac iduqui zuen eta Belengo Portalean otzez ta negarrez icara
egondu cen Jainco Aur eguiña. Cer atseguin ta contentu Ama Virgi-
narena Jaungoico Guizon hau bere barrenean ceducan demboran,
eta guero bere besoetan, gu becatutic ateratceco, jaioric ecusi zue-
nean! Ez dut nic atseguin ta contentuz beteric guelditu bear, ecusten
dudanean <27> nere barrenean, nere animaren besoetan etciñic Jaun
andi hau bera? San Pedroc essaten bacion bere aldean ecusi zuen ba-
tean Christo Jaunari quen cedilla ain guizon gaistoaren aldetic, cer es-
san bear diot nic nere barrenean sarturic ecusten dudanean?

Eldu da Christo Jauna ni gana; anitz daquien, guztiz ona den ta
nai duena eguin dezaquean medicu bat bezala. Aguertuco diotzat
nere beguietaco, nere bearrico, miñgain ta bihotceco zauri guciac,
sendatuac utzi ditzan daquien vitez ta moduz; aguertuco diotzat ne-
re oben edo becatuen arrasto ta ondoreac, gucietaco <28> garbi die-
zadan nere barrena edo anima. Escatuco diot eracutsi diezadala ez
daquidan ta jaquin bear dudan gucia, ta diezquidala bera maitatzeco
bear ditudan indar guciac. Azquenean utcico diot bere escuan nere
biotza ta naizan gucia, guciac daguien, jabeac bezala, nai duena.

Christo Jaunaren Ama ecusi zuenean Santa Isabelec bere
echean, *nondic* (essan zuen) *nondic niri, edo cer nola, Jesusen
Ama, ni ecustera?* Obequi essan dezaquezu zuc arrituric gucia, ta
amorez zoraturic, Jesus bera etortzen zaitzunean cere biotzera: *non-
dic niri onembat favore? Nondic niri <29> mundu guciaren Jaun ta*

Jabea? Nondic niri nigatic guizon eguin ta il cen⁵ Jaincoa? Essan dezaquet alaber, Jacob Patriarca Santuarequin: besarca iduquico zaitut nere biotcean; etzaitut utzico graciaz eta ondasunez bete nazazun artean. Arquitu dut (essan dezaquet anima Santuarequin⁶) arquitu dut, arquitu nai nuena; emen iduquico dut nerequin; ez diot utzico ni beñere bacarric uztera, edo ondasunez bete nazan artean.

COMULGATU ONDOAN EMAN BEAR
DIRAN ESQUERRAC

Ni gana etorri zaran Ceruco Erreguea, gaur ta secula <30> gucian izan zaytez nere biotzaren Jaun ta Jabe. Garguero zurea nay dut izan nazan guci gucia. Zurea den ezquero nere burua, bete zazu Ceruco asmoz ta pensamentuz; ez dedilla nere gogotic galdu zure erioztaren, nigatic eraman dituzun damu-penen ta niri didazun bazterric bagueco amorearen oroitzapena, bear-tu nazan oroitzapen onec zure Biotzaren idurira nerean moldatzèra, ta zure damuaren damuz ta amorearen amorez beteric vicitcera. Cer emain dizut, nere Jaungoico ona, ni gana etorzearequin zuc eguin didazun favorearea gatic? Mundu guciaren Erreguea izana gatic ni; <31> nic izana gatic Aingueru gucien virtutea, nere virtutea ta escua laburrac izain liraque zure escu ta anditasunaren aldean: Cer eguiñen dut, bada, zure beguietan aguer ditequean videren batez nere ezaguera zuri eracusteco⁷? Sartuco naz Ceruco atseguin ta gusto guciac bildu dituen zure Biotzean; onequin ta nerearequin eguiñen dut biotz bat, eta itzulico dizut artu dudan diña; ta nerearen amorea bacarric orretaraco asco ez den ezquero, maytatu nay nuque Ayta Eternoa zure Biotzaren amore guciarequin, nay niotzaque Biotz onequin zuc⁸ ematen diozcatzun esquer guciac eman; eta orain ta <32> beti laudatu bear duen bezala, alabatzen egon

⁵ Jat.: *ilcen*.

⁶ Jat.: *Sauarequin*.

⁷ Jat.: *eragusteco*.

⁸ Jat.: *zuz*.

vici nazan artean, ta secula gucian. Nere Jesus ona itz eguiozu zuc nere lecuan.

MEZA ENZUTECO MODUA

Guizonac⁹ eta Aingueruac eguiten dituzten gauza on guciaquin baño, Meza batequin honra gueyago ematen zayo Jaincoari. Ez da munduan Mezac adiña valio duen gauzaric. Meza da bear dugun gucia decarren iturria. Mezan eguiten diogu Ayta Jaincoari <33> ezin essan ditquean valiozco presenta bat: nola bada uca diezaquegu, ori escuetan dugula, escatcen zayon gauzaric? Meza enzun ondoan bear-su guelditcen bagara, izain da ceren ez dugun enzun bear bezala, edo ceren enzun dugun gogoa Elizaz campoan ta biotza Jaincoac daquien bezala¹⁰ daducagula, ta Jesusen Odolaz, viciaz ta eriotzaz casoric eguin gabe. Meza da Jesusen Gurutzeco neque ta eriotzaren, odol isurteric ez dacarren, berritce bat. Enzuten dutenac egoin dira Mezan dena urratu ta odolteric Gurutcean cegoen Jesusi beguira baleude bezala, eta gogoan artcen <34> dutela nola egoin ciran ordu artan an ceuden San Juan ta Virgiña Amaren biotzac eta beguiac. Onelaco asmoarequin Elizan sartcen dena, Mezan egoin da amore ta nequezco Jesusen Passio santuco itsasotic gogoa ta beguiac quendu gabe: sartuco da Jesusen Biotceraño, ta Biotz orretan icasico du nola vici egun artan ta eriotceco orduraño. Icasten duena eguiten badu, izain du Ceric emen bear duena, ta an seculaco gloria.

<35>

MEZA ASSI BAÑO LEN ESSAN BEAR DENA

Badaquit, Jainco Ona, ez natorrela bear nuquean bezala Meza au entzutera; cerorrec lagundu bear didazu eguiteco au alic onguiena eguiten. Eguin nai nuque fedez adimentua beteric eta damuzco suan biotza urtcen daducadala. Ayta, Semea ta Espiritu Santua, zure icenean eta nere ta Purgatoriocoen oneraco izan dedilla enzutera noan, ta Jesus maytearen lecuan dagoen Apaiz Jaunaren escuz esqueintcen dizudan oraingo Meza ori.

⁹ Jat.: *Guizona*.

¹⁰ Jat.: *beonzala*.

<36>

MEZA ASSITCERACOAN

Ezagutcen dut, nere Jauna ta Jabea, ni bezain gaizqui vicitu denac ez luqueala ni nagoen lecuan <37> egon bear; baña zuc utci nazun ezquero emen sartcen, Meza ematera doan Apayzaren otoizequin batean escatu bear dizut nere becatuen barcacioa. Aytorcen dut gogotic Ceruaren ta lurraren, Ama Virginaren, San Miguel Aingueru, San Pedro, San Paulo ta Ceruan arquitcen¹¹ diran gucien beguietan peccatore nazala, ta aguitz andia; baña gaur danic diot artu ditudala beguitan ta nay ditudala seculaco utci diranac; ta bitarteco emanic zuri, nere Jainco maytea, Virgina bera gañeraco Ceruan diranequin, escatcen¹² dizut¹³ biotz humil damuzco batequin, gueldi ditecela guciac barcatuac.

<38>

APAYZA ALDARERA IGATEN DENEAN

Garbi zazu, Jauna, nere becatuen loya, enzun dezan <39> biotz garbi batequin assi den Meza. Bai arren, nigatic eta gañeraco Cerucoac gatic ez badere, Aldare orretan bere cutsua edo reliquiac dituzten Santuac gatic.

<40>

KIRIEC ASTEN DIRANEAN

Ez duzu, Jainco Ona, cer beguiratu gure gaizqui equin edo becatuetara; beguira zagozu <41> gugatic edo zorretatic ateratcera Aldare orretan aguertuco den zure Seme maiteari. Seme orre gatic escatcen dizut barca ditzazula nere utseguinac, nere oben ta culpac, eta ez dezazula utci cere escutic zure escuac equin zuten nere anima urricari hau.

¹¹ Jat.: *artquicen*.

¹² Jat.: *escantcen*.

¹³ Jat.: *dituz*.

<42>

GLORIA IN EXCELSIS ESSAN BITARTEAN

Atseguin ta contentu Ceruan Jaincoac, eta Jaincoac nai <43> duena eguiten dutenac lurean, izan dezatela baque osoa. Aren escutic artu ditudan ondasun ta gauzac gatic nai diotzat eman conta al baño laudario ta esquer gueiago. Dena bere escutic daducan Aitaren Seme bacar Jesus maitea, becatuen azpitic ateratcea gatic gu, Jaungoicoaren Bildots eguiñic Aldarera zatocen gure Salvatzallea, urricari zaquizquigu, ta atera gaitzatu lembaitlen onembat loi gaisto ta carga andiren azpitic, eta eraman zure edertasuna Ceruan ecustera.

<44>

OTOIZETACO DEMBORAN

Jesus maiteagatic, aren Amaren ta egungo Santuaren icenean escatcen dizugu, Jainco ona, ez dezazula ucatu Apaizac bere <45> ta gure oneraco escatcen dizunic. Nic escatcen dizut nere becatuen damu ta barcacioa, ta emen ta Ceruan zu biotcetic maitatceco gracia.

<46>

EPISTOLACO DEMBORAN

Cere Profeta ta Apostolai Escritura Santuan dagoena eracutsi cenien nere Jaincoa, lagun zaquizquit orien ta zure lecuan niri Ceruco videa eracusteco dauden gucien essanac eguiten; bada, zure laguncearequin batean eguiteco nago nigandic nai duzun gucia.

<47>

EVANGELIOCOAN

Goititu naz, nere Jaungoicoa, Ceru-lurrai adi erazteco, <48> bear baliz, emain nuqueala zure Evangelio Santuco eguiac gatic nere vicia, dudan biotceco odolarequin. Evangelioac eracusten didan videa baicic ez dut nai nic artu. Copetan, aoan ta bularrean eguin ditudan Gurutceac aditcera ematen dutena diot gogo guciare-

quin: diot, bada, cere Evangelio garbian eracusten didazuna baicic siñistu nai ez dudala, ez dudala nai itceaz adiraci, edo biotcez maitatu. Badaquit zure itzac eta eguiac baño len galduco dirala Cerua ta lurra.

<49>

CREDOCOAN

Jauna sinisten ditut zuc aguertu dituzun ta Elizac eracusten <50> dituen eguia guciac. Siñisten dut zu zarala Jainco bat eta iru Persona: Aita, Semea ta Espiritu Santua. Siñisten dut zu zarala Jainco asieraric izandu etzuen ta beti iraun bear duzuna, nai duzun gucia eguin dezaquezuna, ta Ceru-lurrac, diran gaucequin eguin dituzuna. Siñisten dut Aitaren Seme bacar gure Jesu-Christo Jauna, gauza gucietan Aita diñacoa, eguin cela gugatic guizon, edo gu, suzco lece arrigarrian erori lecuan, sar guindecen Ceruan. Orretaraco jaio cen bere Virginia Ama gandic, vicitu cen lurrean, ill cen gurutcean, illen artetic atera irugarren egunean, ta igan cen Aitaren escoieco <51> aldera, andic etortceco onai Cerua, ta gañeracoai irabaci zuten sententia ematera. Siñisten dut Espiritu Santua dela Aita ta Semea bezala Jaincoa, ta virtuteen ta Ceruco doaien iturria; eta gucia beingoan essatea gatic, siñisten ditut ecin utseguin dezaquean Eliz Ama Santuac eracusten dituen eguia guciac. Indazu, Jauna, siñiste vici bat, eta siñiste onec escatcen duen bezala vicitceco gracia.

<52>

OFERTORIOCOAN

Jauna, zor dizudan guciari erantzutea gatic eta beguitan <53> artu ditudan nere becatuen alderaco ematen dizut Apayzaren escuz, diran gauza guciac baño gueyago balio duen ta gure zorrac bere gain artu dituen zure Semea. Seme onegatic barcatu bear dituzu nerea ez ecic¹⁴, emen nerequin arquitcen diranen ta

¹⁴ Jat.: ez-cic.

Purgatorian daudenen¹⁵ zor guciac, eta ez dezazula eman bague utci ni gandic cerbait uste dutenac bear duten gauzaric.

<54>

CONSAGRATU ARTEAN

Gugana zatocen ezquero, gure Jesus maitea, garbi zazu gure biotza becatuen loi ta cutsutic; bada, ez dago ongui zure beguietan <55> gauza lizunic. Amorez erretcen dagoen zure Biotceco sutic eman bear diguzu cerbait, bero dedin gurea ta mayta zaitzagun gogotic. Asco zor dizut, Jesus maitea, bada gu gatic, urtean bein ez ecic egunoro, ta egunean¹⁶ anitz aldiz, etorcen zara Mezacoan gugana, ta etorcen zara gurutcean eman cenuen odola gure zorren alde cere Aytari escaincera. Non arquituco ditugu zuri zor zaizquitzun¹⁷ esquerrac?

Jesusen ta gure Ayta, Cerua utci gabe lurrera dator zure Semea. Badaquizu Seme onec mundu guciac baño gueyago valio duela. Badaquit nic ere ez dela au <56> adiña estimatcen dezun gauzaric. Onembat estimatcen dezun cere Semea eman nay dizut Eliza guciaren, Elizaco Nagusien, nere ayde, Adesquide ta Etsai guciaren icenean. Seme bera gatic ecarritzazu cere Elizara Elizan sartu baguez galduric dabiltzan guciac. Goratzatzu, edo jaso becatutic, becatuaren loyea dautzanac. Ar bezate elcar, elcar icusi nay ez dutenac. Atera bitez Purgatorioco sutic an erretcen daudenac, eta lembicico lecuan Jesusen Biotza ta Ama Virgiña gueyena maytatu dutenac; eta lagun zaizquitzigu guri izan gaytecen vici garaño bear dugunac.

<57> Orain Apayzaren escuz zure escuetaraco da gure zorren pagatzalle zure Seme maytea. Egunen batean aguertu bearco dut nic ere zuri nere zorren contu ematera. Ah gaur danic iltcen balira nere asmo, lan ta gogo gaisto guciac, nere bear ez diran itcequin! Gueroz

¹⁵ Jat.: *dauden*.

¹⁶ Jat.: *egunan*.

¹⁷ Jat.: *ciazquitzun*.

izain ninzaque zure beguetan aguer litequean presentata. Gu gatic Aldarera zatocen Jesus maytea, eguin gaitzatzu bat cerequin. Erre zazu cere suz nere biotza, ta utzazu gucia zurea dirudiela, izan ez dezan zuc nai ez duzun asmo edo gogoric.

<58>

HOSTIA SANTUA GORATCEAN

Amorez Biotza erretcen daducazun, munduco becatuac <59> quentcen¹⁸ ditutzun, Ceru-lurrac ondasunez betetcen dituzun ta Hostia orretan zauden Jesus maytea, indazu cere sutic cerbait, eta erre zazu nere biotza, esqueñi diozadan zurearequin batean zure Aytari. Bitartean indazu eguin ditudan becatuen ciñezco damu ta urriquimentu andi bat.

<60>

CALIZA GORATCEAN, TA ONDOTIC

Guciac gatic issuri ciñan Jesusen odola, itzali zazu nere biotza erretcen duen lurreco su ciquin gaistoa, ta garbi zadazu becatuaren <61> loi ta cutsuetatic, ta indazu, berriz loyea erori ez nadin, escua.

Niri escua ematea gatic, besoac gurutcean zabaldu cenituen, infernuco miru gaistoac nere ondotic cebiltzanean, zure Biotcean gorde nendin, cere bularra idiquia utci cenidan, ta nere becatuen loyac quentceco, cenuen odol gucia eman cenuen, Jesus, au bein eguitea¹⁹ guti baliz bezala orain berritcen da gucia, bada berritcen da, al bezala, Meza Santuan ambat nequerequin eraman cenuen Passioa. Orduco nequea gatic, betico amorea gatic eta oraingo favore berria gatic, lagun zaquizquit nere vici gucico neque lanetan, izan ditecen guciac zure beguetara aguer ditezqueanac.

¹⁸ Jat.: *quen-cen*.

¹⁹ Jat.: *eguiatea*.

<62>

HOSTIA SANTUAREQUIN GURUTZEAC EGUITEAN

Gurutcean goraturic munduari beguira egondu ciñan, <63> Jesus maytea, beguira zagozu bearrean dagoen nere anima tristeari, ta emayozu bear duen atseguin, consuelo ta gracia.

<64>

PATER NOSTER ESSATEAN

Cerorrec eracutsi cenigin *Ayta gureco*²⁰ otoitz edo oracioan escatcen den gauzaric ucà ez daquidan, nai diet, zure essanac eguitea gatic, Jesus maitea, barcatu zure icenean nere etsaiai eguin didaten gaizqui edo vidgabe gucia; ta indazu ordañez nere culpen barcacioa.

<65>

AGNUS DEI ESSATEAN

Munduco becatuac quentceco cere odol gucia eman cenuen Bildots manso, Jesus <66> Ona, valia daquidala odol garbi ori; quen diezadala nere culpen loi gucia, ta utz nazala indarrez beteric nere passio ta aztura gais-toac garaitceco, ta nai nuquean bezala nere gauza guciac eguiteco.

<67>

COMUNIOCO DEMBORAN

Gorputza gurutcean ill ceneco, animarequin limbo-co guciac ecustera ta atseguin ta gustoz betetcera jaitsi ciñan Jesus maitea, atoz arren nere barren illun hau arguiz ta graciz betetcera, edo zauden Aldare orretatic indazu Comunio Santu batean irabaz nezaquean gucia.

<68>

AZQUEN OTOITZ, EDO ORACIOETAN

Limbotic atera ta berroquei²¹ garren egunean limbo-coequin <69> Cerura igan ciñan Jesus gurea, eraman

²⁰ Jat.: *Ayta gurreco*.

²¹ Jat.: *berroquei*.

nazazu, deritzazunean, nequezco vici onetatic nequeric
ez duen cere gloriara.

<70>

AZQUENECO EVANGELIOAN

Cerura igatearequin triste guelditu ciran zure Apos-
tolo ta gañeracoai Espiritu Consolagarria bidaldu ce-
nien Jesus Ona, eguizu datorquidala niri ere bere gra-
ciaren consueloz betetcera, indarrac arturic, eta emen-
go nequeac garaitzen ditudala, sar nadin egunen
batean, angoen lagun izatera, zure Ceruan. Amen.

<71>

CALVARIOCO ESTACIOAC

Calvarioco devocioa, Jesusen Amac Jerusalendic assi ta Semearen
obi edo Sepulcraño <72> eguin zuen videarequin eracutsia da.
Jesus Onari vide artan guertaturicoaren²² señaletzat dauden Gurutce
bacoitcean belaunico essan bear da ango otoitz edo Ofrecimen-
tua, *Ayta Gure* ta *Ave Mariarequin*. Jesusen Ama da, munduco vide
macurrac eta josteta ciquiñac utciric, vide au artu nai dutenen guia
edo guidaria. Amabigarren Inocencio ceritzan Aita Santuac laudatua
daduca ta Indulgenciz betea Calvarioco devocioa. Irabacico dituenac
ascotan, bear du maiz ibilli emen Jesusen Amaren ondotic.

<73>

CALVARIOCO VIDEA ASITZEAN EGUIN BEAR DEN OTOITZA

Astera noan Calvarioco videan eman bear ditudan
pauzuac izan bitez, Jesus maitagarria, zuc Gurutze pisua-
requin cembiltzala Jerusalendic Calvariora eman cemitue-
nen icenean, ta Ayta Santuac devocio au eguiten dute-
nay bereci edo señaletatu diezten Indulgenciac irabazteco.
Irabazten dudan gucia izan bedi nic gueiena zor diete-
dan, edo zuc nay dezun ta Purgatorioan erretzen daude-
nen favorean.

²² Jat.: *guertaturicoaren*.

<74>

LEMBICICO GURUTCECO OTOITZA
 AZOTEEN ONDOAN EMATEN ZAYO JESUS
 ONARI ILZECO SENTENCIA

Gaizquiguille bat bezala loturic Juezez Juez ibili ciñan ta azotez urratua utci cinduzten²³ Jesus maytea, Pilatosec eman cizun ta gu gatic onzat artu cenuen Gurutcean illceco sententia <75> gogorra gatic, lagun zaquizquit eramaten izaten ditudan videbague, charqueri ta neque guciac, nere necatcearequin irabaz dezadan Ceruco atseguin ta gloria. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*, &c.

BIGARREN GURUTZECO OTOYTZA
 EMATEN ZAYO SOÑERA GURUTZEA

Ni nere etsayen²⁴ escuetara ez nadin, cere etsayen escuetara <76> zaran, ta ni becatutic ateratcea gatic Gurutce pisu ta sendo ori soñean²⁵ daramazun Jesus Ona, indazu cere gracia ta escua nere obenac eta culpac bear duten neque castiguen gurutcea eraman dezadan gogo on edo vorondate ossoarequin, nagoen guero zurequin batean nequeric bague ta atseguin ta²⁶ gustoz beteric seculu gucian. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

<77>

IRUGARREN GURUTCEA
 ERORTCEN DA GURUTCEAREN AZPIAN

Andia da nonbait, nere biotceco Jesus, nere obenen ta culpen Gurutcea; bada ecin jassoz, ba zara ere Jainco guizon indarsua, eroria zautza orren azpian. Lagundu nay niquezu, Jesus maytea, zautzan lecutic jayquitcen. <78> Badaquit nola: arintcen dudala zure gurutcea ta uzten ditudala becatu guciac. Indazu eguin ditudanen

²³ Jat.: *cinduztzen*.

²⁴ Jat.: *etzsayen*.

²⁵ Jat.: *sonean*.

²⁶ Jat.: ez dago juntagailurik.

damu andi bat, eta berriric ez eguiteco gracia. Ala guerta dedilla. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

LAUGARREN GURUTZEA
BATCEN DU JESUSEC AMA

Izandu den semeric Onena galtcera zoacen Ama Virgîna, orra <79> non datorren gurutce pîsu bat soñean duela zurea; ecusi nay ez badezu odolturic dena ta icerdiz ta loyez betea, nay ezbadezu ura orrela ecusteac erdira diezazun cere²⁷ Biotza, ez da cer beguiratu; edo, beguiratzen badiozu, izan bedi²⁸ berari escatceco nere nequeac ongui eramateco ta cerua irabazteco²⁹ bear dudan gracia. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

BOSTGARREN GURUTZEA
 <80> *LAGUNTZEN DIO GURUTCEA ERAMATEN SIMON CIRENEOC*

Calvariora baño len Gurutcepean vicia gal cenezan beldurrac, eta lembait len Gurutcean ilcez josiric ecusteac gatic zu, eman cizuten, lagun eguiteco, Simon ceritzan guizon bat. Zori oneco guizona ori: ta zori onecoa ni ere, artcen ba-ninduzu orrequin batean! Ar nazazu arren orain cere lagunzat, sar nadin guero zurequin batean, Gurutce orretan irabazi³⁰ bear didazun Ceruco glorian. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

<81>

SEYGARREN GURUTZECO OTOYTZA
GARBITCEN DIO VERONICAC ICERDIA

Gurutce pisuarequin³¹ cembiltzanean erortcen citacitzun³² odol ta icerdia garbitceco Veronicac ecarri cizun oyalean cere antza ta imagiña utzi cenen Jesus nèquez

²⁷ Jat.: *cene*.

²⁸ Jat.: *bebi*.

²⁹ Jat.: *irabatceco*.

³⁰ Jat.: *irabatzi*.

³¹ Jat.: *pisaurequin*.

³² Jat.: *citacitzun*.

betea, utzazu³³ nere biotcean ere zure neque gucién señalear, oroy nadin zuri zor dizudanaz <82> ta nagoen beti esquerrac zuri ematen emen ta Ceruan. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

ZAZPIGARREN GURUTZEA
ERORTCEN³⁴ DA BIGARREN ALDIAN

Simon Cireneoc laguntzen dizula ere, gurutzea ecin eramanez berriz erori zaran Jesus maytea, orduan artu cenituen ille tiraca ta ostico ciquiñac gatic, <83> indazu gracia ar ditzadan³⁵ nic zure icenean, lurrean eguiten zaizquidan videbague guciac; nagoen guero, zu ecusten zaytudala, atseguin ta gustoz beteric Ceruan. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

ZORTZIGARREN GURUTZEA
ITZ EGUITEN DIE JERUSALENGO ALABAY

Flaquiaz³⁶, cargaz ta nequez beteric cembilzala, necatua ez baceunde bezala, Jerusalemgo <84> Alabay jaquin bear zutena eracutsi cenien Jesus maytagarria, eracus zadazu cer eguin behar dudan Ceruco videan ez utseguiteco, ta vide honetan izan behar ditudan neque guciaquin iraun dezadan zure gracian eriotceco orduraño, ta indazu, daramazun neque andia gatic, orretaraco behar dudan laguntza³⁷ ta escua. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

BEDERETCIGARREN GURUTCECO OTOITZA
<85> ERORTCEN DA IRUGARREN ALDIAN

Becatuen azpitic atera³⁸ ta jaiqui nadin, irugarren aldian lurrera zaituen gurutcearequin zabilzan Jesus necatua, lagun zaquizquit lembait len becatuen carga

³³ Jat.: *utazazu*.

³⁴ Jat.: *Erotcen*.

³⁵ Jat.: *ditzadau*.

³⁶ Jat.: *flaquidiaz*.

³⁷ Jat.: *lagutza*.

³⁸ Jat.: *tera*.

utciric, arin diezazudan gurutce pisu hori eguin dizuten nere culpen damu andi batequin, ta irabaz dezadan gaurguero zu bihotz gucitic maitatzeco gracia. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

<86>

AMARGARREN GURUTCECO OTOITZA
QUENTCEN DIOTZATE SOÑECOAC

Soñecoric bague cere burua ecusi cenuenean izandu cenuen alque ta lotsa gatic escatcen dizut, Cerua izarrez ta lurra lorez estaltcen duzun Jesus nere Jaungoicoa, estal nazazula graciaren ta virtuteen³⁹ soñeco ederrarequin, jar nadin, egunen batean, <87> Ceruco eztei garbietaco maian Aingueru ta Santu gucien artean; ta soñecoa, azotez urratu cizuten Gorputcetic tiraca etsaiac quentcearequin artu cenuen Oñace ta doloreac gatic, indazu nere becatuen ta aztura gaistoen soñeco ciquiñac quentceac emain didan Oñacea eramateco gracia. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

AMECAGARREN GURUTCECO OTOITZA
<88> *GURUTCEAN ITZATCEN DUTE JESUS*

Asma hal adiña nequerequin ecarri duzun gurutcean itzaturic arquitcen zaran Jesus Ona, nere becatuac eguin dizuten ohatce gogorra gatic, edo orretan daramazquitzun neque-penac gatic, eguizu harren gueldi dedilla nere bihotza ta anima pena ta neque horien damuzco iltcez⁴⁰ zure Gurutcean josia; bertce munduraño ez dut nai zurequin necatcea bertce atseguñic. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

<89>

AMABIGARREN GURUTCECO OTOITZA
ILTCEN DA JESUS GURUTCEAN

Oin ta escuetaco zain-ezurac iltcez⁴¹ urraturic, Gorputz gucia odol ta nequez betea ceneducala, ta anima

³⁹ Jat.: *virtuten*.

⁴⁰ Jat.: *itcez*.

⁴¹ Jat.: *itcez*.

neque edo dolozeco itsaso eguiñic, azqueneco atsa nigatic eman cenuen Jesus <90> Ona, badaquit cere neque guicien artean ez ninduzula cere gogotic utci; baita escatu ere ceniola cere Aitari nere oben ta culpa guicien barcaioa. Ez dut nic zuri nondic eman zor dizudana; eman dezaquedana, ta gaurguero gogotic emain dizudana zure graciarequin batean, da nigatic eraman duzun nequearen damu ta sentimentu andi bat. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

AMAIRUGARREN GURUTCECO OTOITZA

<91> *JESUSEN AMAREN DOLOREZCO BACARTASUNA*

Nere becatuac quendu cizuten cere seme bacarra illa ecusi cenuenean, norc nai daqui, Ama maytea, itsasoa bezain andia izandu cela zure Bihotceco illuntasun ta sentimentua. Damuz nago ni ere, ceren ni gatic galdu duzun, guciac baño gueiago valio duen ta ecin gueiagoraño maite duzun cere semea. Cere Bihotceco neque andia gatic indazu, harren, ez zure nequeric ta ez zure semearen eriotza becatu berriequin berritceco gracia. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

<92>

AZQUENECO GURUTCECO OTOITZA⁴² *JESU CHRISTOREN SEPULTURA SANTUA*

Cere Gorputcean eraman cenituen neque andi ta eriotza gogorraren ondoan Gorputza bera gurutcean ill ta illen sepulturara eraman cezabela uztearequin guizon eguiazcoa ciñala eracutsi cenuen Jesus nere Jaungoico Ona, ni gatic eraman dituzun <93> neque andi ta eriotza⁴³ gatic escatcen dizut izan nadilla ni, comulgatcen nazan gucietan, zure Sepulcro garbia, utci nazazun orduan cere graci⁴⁴ ta amarez betea, irabaz dezadan aisa seculaco gloria. Amen. *Ayta gurea*, ta *Ave Maria*.

⁴² Jat.: *Otoizza*.

⁴³ Jat.: *er otza*.

⁴⁴ Jat.: *graci*.

<94>



<95>

JESUSEN BIOTZAREN BEDERATZI-URRENA

Bederatci urren hau assi oi da Corpus Christi egunean, acaba dedin Jesusen Biotzarenean. Anitcec eguin oi dute illoro ere, assitcen dutela illaren azqueneco ostegunean, ta acabatcen ill berriaren lembicico ostiralean.

<96> Bederatci-urrena eguiten den egunetan eguin bear dira beste egunetan baño cembait obra on gueiago. Lembicicoa izan diteque ongui confessatu, ta comulgatcea.

Bigarrena, bost aldiz, edo dezaqueanetan, joatea Jesus Sacramentatua Elizan ecustera: an dion amorea cembat estimatcen duen, ta gaizqui comulgatcen diranac eman derozten sentimentuen penez dagoela aditcera ematera.

Irugarrena, bere mihi, begui, beharri eta gañeraco sentiduac cuidadoz gordetcea; eta osasunac laguntcen ba dio, edo uzten ba diote eguitecoac, baruren bat edo beste ateratcea, edo edocin videz <97> gorputza cerbait necatcea.

Laugarrena: iracurtcen edo leitcen, eta Jesusen Biotceco nequeamoretan pensatcen, cerbait dembora passatcea.

BEDERATCI URRENAREN ASITCEA

Al badedi eguin bear da bederatci-urren hau edo Sacramentu Santuaren edo Jesusen Biotzaren Estamparen baten aiticinean edo abrean. Lembicico otoitz edo oracioa asitcen da ciñatu ta *Nere Jesu Christo Jauna, &c.* pag. 5. erran ta ondoan⁴⁵.

<98>

*EGUNORO LEMBICICO LECUAN
ESSAN BEAR DEN OTOITZA*

Gure Jesus maitea, zure Biotzari Trinitade guciac eman ciotzan graciazco ondasunac gatic, iguzu zurea dirudien biotz garbi bana, bederatci urren onetan escatu bear dizugun ta conveni zaicula zuc daquizun guciarequin.

*LEMBICICO EGUNEAN BAICIC ESSAN
BEAR EZ DEN OTOITZA*

Gure biotceco Jesus Ona, gure oztasun ta utsegi-teac gu gandic quentceco cere Biotcean duzun ansia ta deseño andia gatic, <99> bero zazu cere amorearen suan gure biotza, ta lagun zaguzu, gure damu ta sentimentuarequin, zure Biotceco sentimentu ta nequeac arintcen; ta ez arren ucatu bederatci urren onetan escatcen dugun gauzaric. Ala guerta dedilla.

Orain essan bear dira iru *Aita gure, &c.* eta iru *Ave Maria, &c.* Jesusen Biotzaren iru señalear aditcera ematen duten amore ta penen icenean.

*EGUN GUCIETAN AITA ETERNOARI
EGUIN BEAR ZAION OTOITZA*

Aita Eternoa, bitarteco emanic ecin gueiagoraño nai dizun <100> zure seme maitearen Biotza, escatcen dizugu argui ditzatzula, zu ezagutu ta maitatceco, itsuturic vici diranac; artean ta beti nai cinduzquegu gucienean ezagutu guc, eta gogotic maitatu. Iduqui zatzu cere gracian bataiatuic dauden guciac, eta ecarri gra-

⁴⁵ Liburu honetako 5. orrialdean agertzen den "Contricioa" formularen erreferentzia.

ciaren arguira argui onetatic urrun dabiltzanac. Ez dezala arren batec ere Jesus Ona ezagutu ta maitatu bague gaurguero utzi. Guciac gatic il cen ezquero, guciac sar ditecela beragatic Ceruan. Beraren Biotcean sarturic utci nai guenituque gure aide ta adisquide, guc zor diegun ta guri ongui edo gaizqui nai diguten guciac; <101> guciac ar dezaten zure gandic emen gracia ta beste munduan gloria. Ala guerta dedilla.

Emen escatcen da, Jesusen Biotza bitarteco arturic, erditsi nai den gucia. Guero essaten da:

Añã. Improperium expectavit Cor meum, & miseriam, & sustinui, qui simul contristaretur, & non fuit, & qui consolaretur, & non inveni.

V. Discite à me, quia mitis sum, & humilis Corde.

R. Et invenietis requiem animabus vestris.

<102>

OREMUS

Domine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui divitias Ecclesiae Sponsae tuae singulari dilectionis beneficio aperire dignatus es, concede propitius, ut gratiis coelestibus, ex hoc dulcissimo fonte manantibus, corda nostra ditari, ac recreari mereantur. Qui vivis, & regnas in saecula saeculorum. Amen.⁴⁶

⁴⁶ Honako hau eransten du Mendiburuk latinezko pasartearen amaieran: "Latinez aditzen ez duenak latina utzi, ta esan dezake:/ Aña.: Illuntasunez, nekez ta izerdiz beterik daduzkadala nere gorpuz-Bihotzak ez dut idiro lagunzallerik, edo nork arindu zerbait nere tristura./ Vers.: Ikasi nigandik bihotzeko beratasuna, ez aserretzea ta ez burua goratzea./ Resp.: Ori da alabaña ongi ta aisa bizitzeko bidea./ OTOITZA/ Kont-al baño ondasun geiago zere Bihotzeko Debozioan Elizari berriro agertu diozkatzun Jesus maitea, Bihotz onetako amore andia gatic iguzu gure bihotzak garbitzeko behar dugun graziaren ura ta zu ziñez maitatzeak eskatzen duen guzia. Bai arren, Aitarekin ta Espiritu Santuarekin bat zaran Jesus ona. Amen" (1751).

*EMEN, TA COMUNIOCO EGUNETAN BEINTZAT, ESSAN BEAR DEN TA
ANITZ VALIO DUEN OTOITZA⁴⁷*

Jesusen Anima, virtutez bete nazazu.
 Jesusen Biotza, amorez erre nazazu.
 <103> Jesusen Gorputza, salva nazazu.
 Jesusen odola, amorez zora nazazu
 Jesusen Biotceco ura, garbi nazazu.
 Jesusen icerdia, gracizco viciz bete nazazu
 Jesusen Passioa, indarsu eguin nazazu.
 Nere Jesus Ona, adi nazazu.
 Zure llaquetan, zure Biotzaren erdian gorde nazazu.
 Ez nadilla ni etsaien escuetan erori.
 Nere eriotceco orduan deytu nazazu.
 Zure gana eraman nazazu.
 Zure Santuequin alaba zaitzadan beti secula gucian.

<104>

BIGARREN EGUNECO BIGARREN OTOITZA

Jaincoac gu gana etortceco ta bere gana eramateco
 ate ta videtzat artu zaytuen Jesusen Biotza, egon zaytez
 beti idiquia ta zabaldua, noiz nay sar gaytecen zure
 Ayta gana zu maytatceco bear dugun graciaren esque.
 Iguzu zure penen pena andi bat eta orain escatcen di-
 zugun gucia. Ala guerta dedilla.

IRUGARREN EGUNECO BIGARREN OTOITZA

Ur garbizco iturri, Jesusen Biotz andia, egarriz ito-
 tzen gaude edo zure virtute eta <105> devociozco urez
 asse nayez. Nay guenuque dembora berean Aldare
 Santuan mundu guciac eguin diezquitzun videbague

⁴⁷ Bi urte beranduago "Orain, Comunico egunetan ta noiz nai erran dite-
 quean ta anitz valio duen otoitza" izenarekin eman zuen S. Mendiburuk
 Mikelestorenaren otoitz hau bezalako bertsioa "Jesusen Bihotzaren bedera-
 tzi-urrena egiten duenari" kapituluian, "Egun oroco irugarren otoitza" atalean
 (*Jesusen Bihotzaren Kongregazioko reglak*, 1751, §. XIII; antzekoa???? in
 1760, o.g.). "H"-ren bat gorabehera, "dei nazazu" da Mendiburuk dakarren
 desberdintasun bakarra (aurreko aditz guztien ereduari muzin eginez, A, B
 eta D: edizioetan Mikelestorenak: "deytu nazazu").

edo injurien damu andi bat, bayta orain escatcen dizugun gucia⁴⁸ ere. Ala guerta dedilla.

LAUGARREN EGUNECOIA

Jesusen Biotz garbi, virtute ta Santidadezco ispillu ederra: nay guenuque, zuri beguira gaudela, itz, asmo, lan ta gogo gucietan zure idurico biotz batequin guelditu, bayta artu ere, gu gatic anitzetan, ta nion baño gueyago Aldareco Sacramentu <106> Santuan artu dituzun videbague gucien damu andi bat, egun onetan escatcen dugun guciarequin. Ala guerta dedilla.

BOSTGARREN EGUNECOIA

Gure gauza ta lan onai azqueneco izatea edo edertasuna ematen diezun ta Biotz bera duzun Jesus On maytagarria, uzten⁴⁹ ditugu guciac zure escuetan, molda ditzatzun ta utzi zure Aytaren beguietara atera ditezquean bezala; ta escatcen dizugu diguzula zure escua munducoen escutic artu dituzun videbague damu ta sentimentu andi <107> bat artceco, orain escatcen dizugun favorearequin batean. Ala guerta dedilla.

SEIGARREN EGUNECOIA

Bear duguna Jaincoari escatceco Eliz eder bat cere Biotcean utzi diguzun Jesus amorez betea: milla esquer zuri Eliza onetan arquitcen dugun atsequin, contentu ta dicha gatic. Ortic atera bague nay guenituque gure egunac acabatu; nay guenuque, or vici garala, gure damuarequin zure damu ta penac arindu, ta zure escutic bear ditugun gauza guciac artu. Ala guerta dedilla.

<108>

ZAZPIGARREN EGUNECOIA

Zure icenean ta zure Biotceco amoreac gatic escatcen zayon gauzaric ucatzen⁵⁰ ez⁵¹ daquien Aytaren Sem Jainco Guizon eguiazcoa, zu bitarteco emanic eta

⁴⁸ Jat.: *guacia*.

⁴⁹ Jat.: *utcen*.

⁵⁰ Jat.: *utcatzen*.

⁵¹ Jat.: akats larria, ez baita ezezko partikula azaltzen.

zure Aldareco⁵² videbagueen damu ta sentimentuz be-
teric, escatcera goaz erditsi nay duguna. Lagun zaquiz-
quigu uca ez diezagun beñere escatcen dugun gauza-
ric. Ala guerta dedilla.

ZORZIGARREN EGUNECOIA

Gure amorez urtcen zauden Jesusen Biotz ederra,
nay guenuque gueldi litecen gure ta gucien biotzac su
orretan urtuac, <109> amorez erantzuteco zure amore-
ari. Ez arren au ucatu, ez eta orain escatcen dugun gau-
zaric ere. Ala guerta dedilla.

AZQUENECO EGUNECOIA

Gure becatuen arantza-gurutzeac⁵³ nequez bete zay-
tuzten Jesus maytea, bete bear dituzu, zure Biotceco
amoreac gatic, graciaz⁵⁴ ta Ceruco ondasunez gure biotz
gogor gaistoac. Eman bear diguzu dembora berean gure
becatu itsusiac zuri eman dizuten tristuraren damu ta
tristura andi bat. Eta ez arren ucatu bederatzi urren one-
tan escatu dizugun gauzaric. Ala guerta dedilla.

<110>

*JESUSEN BIOTZ MAYTEARI*⁵⁵

Gure gusto, gure atseguin,
gure Jesus maitea;
Cere Biotceco suan
erre zazu gurea.

⁵² Jat.: *Alderaco*.

⁵³ Jat.: *arrantza gurrutzeac*.

⁵⁴ Jat.: *graciz*.

⁵⁵ Mendiburu josulagunak kantika berdintsua dakar “Jesusen Bihotz maita-
garriari” izenburupean bere *Euscaldun onaren biciera* liburuan (Iruñea,
Martin Joseph Radaren etxean, 1762) “Jesusen Bihotzaren bederatz-urrena”
atalean. Mendibururen bertsiotik honako hau baino hurbilago daude Mike-
lestorenak Anchuelarenean (1751) eta Radarenean (17??) argitaratu zituenak.
Bertso eta Olerkien Hemeroteca-k Mendibururi egozten dio bertsoen egile-
tza (<http://www.armiarma.eus/cgi-bin/urkiza/EBMODBER.pl?Bertso=30176>),
baina argitalpenen kronologiari erreparatzen bazaio, Mikelestorenari lego-
kioke meritu hori, 1749an kaleratu baitzuen lehen bertsoa.

Gure obenac, gure loiac
lenic quendu bear dira:
Ura zara, quen itzatzu;
galdu gara bestela.
Badaquigu zaudela
gure amorez betea.
*Cere Biotceco suan
erre zazu gurea.*

Ez daude loyac utsic
gure biotz gaistoan;
<111> busti ta ur eguiña dago
becatuen cutsuan.
Garbia da, bero dago
Jesus Ona zurea:
*Cere Biotceco suan
erre zazu gurea.*

Arguiz⁵⁶ dago beteric
Jesus zure Biotza:
illumbean gurea
elurra bezain otza.
Eldu gara, aguer zazu
zu ganaco videa.
*Cere Biotceco suan
erre zazu gurea.*

⁵⁶ Jat.: *aguiz*.

Noizbait, noizbait arqitu dut
bular ori idiquia!
Sartuco naz, ar nazazu
Biotcean gucia.
<112> Nere icaren, nere otzen
berotceco labea:
Cere Biotceco, &c.

Zure suac, zure garrac
auts eguiñen naute ni?
Guerotzic⁵⁷ egoin ninzaque
amorez urtcen beti,
Jesus, zu zauden ezquero
gure amorez errea:
Cere Biotceco, &c.

Au cer da? Cer penac dira
dituzunac⁵⁸ barrendic!
zure Biotza utzi dute
dena nequez beteric!
Damuz nago, urriqui dut
zu orrela ecustea.
Cere Biotceco suan, &c.

Zure Biotza arquitcen da
<113> lantzaz erdiratua:
nere culpen ezpata dà
zure erdiratzallea.
Damuz erdira⁵⁹ baledi
nere barren tristeà!
Cere Biotceco suan, &c.

⁵⁷ Jat.: *guerotzic*.

⁵⁸ Jat.: *dituzanac*.

⁵⁹ Jat.: *ardira*. Beste edizioetan: *autsi*.

Arantza zorrotzac baicic
 ez dezu nere escutic;
 nere culpen aratzequin⁶⁰
 dena zaude odolturic.
 Ah, ni baldin banengo
 negar damuz assea!
Cere Biotceco suan, &c.

Gure culpac eguin dute
 Gurutze sendor Orì;
 culpac ezartcen diote
 zure Biotz Onarì.
 Culpa gaisto, oben gogor
 <114> oben culpa nereà!
Cere Biotzeco, &c.

Cer nai duzu? Certan zaude,
 Jesus Ona Aldarean?
 Artcen dago charqueriac
 amorezco lecuan.
 Charquerien pena nai du,
 nai du gure amoreà.
Cere Biotzeco suan, &c.

Ez ote dut maitatuco
 Jesus zure biotza?
 Nic artuco ez ote dut
 zure nequeen damuà?
 Esque nator, zabal zazu
 Biotzeco Atea.
*Cere Biotzeco suan
 erre zazu gureà.*

Laus Deo

⁶⁰ Jat.: *aratzequin*.